AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

208

1923/2011 EBAZPENA, abenduaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Lanbide Taldeko Mediku (Erradiodiagnostikoko Fakultatibo Espezialista Medikuen lanpostu funtzionala) kategorian pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko hautatze-probetarako epaimahaia izendatzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1285/2011 Ebazpenaren bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Lanbide Taldeko Mediku (Erradiodiagnostikoko Fakultatibo Espezialista Medikuen lanpostu funtzionala) kategoriako oinarri espezifikoak onartu dira.

Oinarri orokorrak onartu zituen ebazpenaren 19. oinarrian zehaztutakoaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatu behar du.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehenago aipatutako kategoriaren prozesuari dagokion Kalifikazio Epaimahaia izendatzea. Epaimahaikideak ebazpen honen I. eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA

ERRADIODIAGNOSTIKOKO FAK. ESP. MEDIKUA

Lehendakaria:

– Titularra: Omaechevarria Legarra, Miren Edurne.
– Ordezkoa: Ferreiro Gonzalez, Isabel.

Lehenengo bokala:

– Titularra: Grande Icaran, Domingo.
– Ordezkoa: Ugarte Maiztegui, Mario.

Bigarren bokala:

– Titularra: Arrizabalaga Guereñu, Ramon Jose F.
– Ordezkoa: Fariña Sarasqueta, Asuncion.

Hirugarren bokala:

– Titularra: De Blas Bravo, Mariano.
– Ordezkoa: Glez Del Campo Y Doncel, Maria Paz.

Laugarren bokala:

– Titularra: Oñatibia Bagues, Agustin.
– Ordezkoa: Camara Perez De C, Mercedes.

Bosgarren bokala:

– Titularra: Fraile Moreno, Eduardo.
– Ordezkoa: Blazquez Sanchez, Javier.

Seigarren bokala:

– Titularra: Martinez Alvarez, Arsenio.
– Ordezkoa: Larrea Bilbao, Luis Maria.

Idazkaria:

– Titularra: Rodríguez Álvarez, Antonio Miguel.
– Ordezkoa: Serna Rodríguez, Francisco.